

EMAKUMEEN ETXEARI BURUZKO 4. HAUSNARKETA-JARDUNALDIAREN AKTA

3/2010 BILERAREN AKTA

Eguna: 2010eko martxoaren 26a

Ordua: 16:00

Tokia: Gobernu Batzarraren bilera-aretoa

BILDUTAKOAK:

- ✓ Gehitu (2 ordezkari)
- ✓ Dandai (6 ordezkari)
- ✓ Garraldi (1)
- ✓ Emakumeak eta Hiria Foroa eta Garraldi (1)
- ✓ Intxaurrondo Berri (1)
- ✓ Emakumea – La mujer (1)
- ✓ Arrats (1)
- ✓ Amnistia Internazionala eta EHUko Gizarte Kontseilua (1)
- ✓ Emakumeak eta Hiria Foroa eta Emakumeen Etxea elkarte (1)
- ✓ Emakume Bananduen Elkarte (2)
- ✓ Plazandreok (3)
- ✓ Plazandreok eta Emakumeen Etxea elkarte (1)
- ✓ SOS Arrazakeria (1)
- ✓ Garaipen (1)
- ✓ Mochilas Rojas (2)
- ✓ Hizkuntz Normalkuntza, Berdintasun eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria (1)
- ✓ Zinegotziaren aholkularia (1)
- ✓ Berdintasuneko teknikaria (1)
- ✓ Berdintasun eta Lankidetzeta Atala (1)

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:

- ✓ Aranzazu Etxekoandreen Elkarte.

Bilera hasteko gai-zerrendaren eta bileraren inguruko azalpenak eman dira.

1. "Emakumeen etxea eraikiz, hiria eraldatuz" jardunaldien laburpena

- **1. saioa, 10/03/03: "Zaintza eta erantzunkidetasuna"**. Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak eta Ermuko Zaintzen Plataformak parte hartu zuten.

Erreferentziako gune fisiko bat sortzearen garrantzia azpimarratu zuten bi elkarteek. Borondatezko lan espezializatua. Interesgarria emakumeekin lan egitea, bere gain hartzen dituzten etxeko eginkizun eta zaintze-lanen ikuspegitik, jabetzeko emakume horien inguruko zer guztiaz, premiez eta lan-eskubideez.

- **2. saioa, 10/03/10: "Kultura eta arte feminista"**. Centre Culture de Dones-ek, Bilboko Emakumeen Dokumentazio Zentroak eta Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentroak parte hartu zuten.

Ez gainjartzeko, dauden baliabideak ezagutzearen garrantzia nabarmendu zuten. Emakumeen Etxeko dokumentazio- eta ikerkuntza-zentroari espezifikotasuna edo balio erantsia ematea. Funtz espezializatua sortzea planteatzen dute. Erakundeen finantziarioa eta konpromisoa lortzea garrantzitsutzat jotzen dute. Dokumentazio-zentroa baino harantzago joatea proposatzen dute, eta beste alderdi batzuk gehitzea, esaterako teknologia berrien eta artearen inguruko prestakuntza eta ikerkuntza.

- **3. saioa, 10/03/17: "Jabekuntza eta partaidetza Emakumeen Etxean"**. Bizkaiko Jabekuntza Eskolak, Kordobako udalaren feminismo eskolak eta beste pertsona batek parte hartu zuten.

Emakumeen talde-jabekuntzaren prozesuekin baterako prestakuntzaz aritu ziren. Prestakuntza dibertsifikatua (profesionalei, teknikariei, emakumeen elkarteei, guraso elkarteei, eskolei eta abarri zuzendua). Etxea emakumeen banakako eta taldeko jabekuntzarako erreferentzia gisa (emakumeen aztarna eta aztarna feminista). Kontu-sail espezifikoak eta esanguratsuak.

2. Orain arte adostutako alderdiak.

Gune horren helburu nagusia, jardunbideak, printzipioak, zerbitzuak eskaintzeko irizpideak, eginkizunak, zerbitzuak, proiektuak, jarduerak eta funtzionalitatea (ikusi *Power Pointa*).

3. Gaur zer dagokigun.

4. Bi uneak.

Zinegotziak azaldu du Emakumeen Etxeak, Okendoko behin behineko egoitzan, informazio-zerbitzuak edo beste era bateko zerbitzuak eman behar dituen eta zer baldintzatan eman behar dituen zehaztea dela gaurko bileraren helburua. "Bi une" aipatzen dira, Okendori buruz erabaki behar delako, Villa Soroa bistatik galdu gabe. Bi kokaleku horiek bisitatzeko egunak gogoratu dituzte: Villa Soroa, martxoaren 27an eta Okendo kalekoa, apirilaren 15ean.

5. Izandako harremanen laburpena.

Erakundeekin izan dituzten harremanen azalpena egin du zinegotziak. Hauek dira:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia.** Proiektua aurkeztu diote, baina erantzunik ez da jaso oraindik.

- **Emakunde.** Proiektuarekiko interesa adierazi dute, Emakumeen Kontseilu Autonomikoaren egoitza izan dadin, eta aurrekontu-sail txiki bat agindu dute.
- **EHU.** EHU-ko Berdintasuneko zuzendaria Emakumeen Etxearekin elkarlanean aritzeko proposamen bat prestatzen ari da, Dokumentazio Zentroa abian jartzeari begira batez ere.
- **Eusko Jaurlaritza.** Bilera informal bat egin da, baina Kultura Saileko Aholkulariarekin bilera egiteko eguna jarrita dago jada.
- **Berdintasun Ministerioa.** Aste Santuaren ondoren Madrilen bilera egitea aurreikusten da. Villa Soroa eraberritzeko lanak finantzatu ditzan proposatzen da.

Elkarteei dagokienez, lehenengo harremanak izan dira gaur egun eta beren aldetik emakumeei zerbitzuak ematen dizkieten zenbait elkarterekin. Hauek dira: Biltzen, Arrats, Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarte, Emakumea - La Mujer, SOS arrazakeria, Erroak-Sartu, Aspegi, Garaipen eta Gehitu.

Elkarte horietako gehienak bilera honetan daude, eta eskaintzen duten zerbitzu-motaren eta Emakumeen Etxearen inguruan dituzten asmoen azalpena egin dute.

- **Arrats.** ordezkariek azaldu du gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenei, bereziki presoiei, laguntza ematea dela Arratsen eginkizuna. Presoentzako harrera-etxe bat kudeatzen dute, eta bortizkeria matxistaren biktimak (legez horrelakotzat onartuta ez badaude ere) joan ohi dira bertara. Emakumeentzat bakarrik izango den etxebizitza baten premia planteatu dute. Duten beste arazo bat da gizarte-laneko taldean gehienak emakumeak direla (% 80), erasotzaileak eta bortxatzaileak artatu behar dituzten emakumeak, eta horrek arazo handiak sortzen dizkietela. Kartzelatik ateratzen diren erasotzaileak geldiaraztea oso garrantzitsua dela azpimarratu du, eta hori bortizkeria matxistaren prebentziotzat jo behar litzatekeela. Barne-prestakuntzan aritzen dira, eta bitartekaritza penal eta familia-bitartekaritza ere bai, esate baterako, aita/ama eta seme/alaba arteko biolentzia kasuetan. Martuteneko kartzelara asteen bitan joaten dira emakumeekin lanean aritzeko, eta asteen beste bitan, gizonekin aritzeko. Adierazi du bere elkarteak Emakumeen Etxean ezer gutxi egin dezakeela, une hauetan gainezka dabilzalako eta krisia asko eragiten ari zaielako. Hortaz, ezin izango lukete doako zerbitzurik eman (doako, udalarentzat). Zenbait erakunderekin dituzten hitzarmen eta diru-laguntzen bidez finantzatzen dira. Jarduneko prostitutekin ere aritzen dira, baina esan dute zerbitzu hori ezin dela Etxera eraman, emakume horiek anonimata gorde nahi dutelako, eta zerbitzura joateak prostitutatza identifikatzea dakarrelako. Hala eta guztiz ere, Emakumeen Etxeko zerbitzuei eta jardueri buruzko informazioa emango zaie.
- **Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarte.** 1976an sortu zen elkarte honek lege-aholkularitza ematen die emakumeei, batez ere banatze gaietan. Aholku-zerbitzu horretara jotzen duten emakumeek ez dute zertan elkartearekin harremanetan jarraitu behar gero. Urteko kuota bat ordaintzen duten berrogeita hamar bazkide inguru dituzte, eta lau boluntario, gurditik tiratzeko. Denboraldi batez gizarte-laguntzaile bat izan zuten, baina joan egin zen ezin ziotelako ordainsaria ordaindu. Diru-laguntzen mende daude erabat. Interesgarria iruditzen zaie aholku-zerbitzua Emakumeen Etxera eramatea, baina, bestalde, zalantzak dituzte, beren egoitzan ematen jarraitu nahi dutelako. Zinegotziak hitza hartu du esateko elkarteek beren egoitzetan zerbitzua ematen jarraituko luketela; noizean behin zerbitzua Emakumeen Etxera eramatea dela kontua.
- **Emakumea - La Mujer elkarte.** ordezkariek azaldu du berak emakumeen etxetzat ulertzen duela Emakumea elkarte. Informazio orokorra ematen dute, eta urte batzuk daramatzate emakume immigranteei laguntza ematen. Laguntza psikologikoa (banaka zein taldean) eta juridikoa ematen dute. Tratu txarrak prebenitzeko (detektatzen ikasteko) eta

jabekuntzako taldeak antolatzen dituzte. Zerbitzu horiek Emakumeen Etxean tokia badutela deritzo, baina nola egin ikusi behar litzatekeela.

- **SOS Arrazakeria.** ordezkariak azaldu du bera immigranteei (emakumei zein gizonei) lege-aholkuak ematen aritzen dela, eta bere lankidea espezializatuago dagoela emakumeen gaitan. Dokumentazio Zentrotik emakume immigrantearen jabekuntzarako gida kaleratu dute. Emakumeen Etxea gidari jarraipena emateko, hedatzeko eta edukiak lantzeko toki egokia izan daitekeela irizten diote. Emakumeen aurkako bortizkeriari buruzko azterlana egin nahi dute, eta horregatik, prest daude Etxean lanean aritzeko, batez ere Dokumentazio Zentroari dagokionez.
- **Erroak-Sartu.** Sartuk eskaintzen dituen zerbitzuak azaldu ditu ordezkariak: lanbide-orientazioa eta gizartean eta lan-munduan txertatzeko ikastaroak. Horrez gain, enpresak sortzeko laguntza-zerbitzua ematen dute. Berdintasun gaitan sakonago aritu nahi dute. Europako Gizarte Funtsaren finantziarioekin, bi udal eta bi foru aldundiren laguntza duen berdintasunari buruzko proiektu bat jarri zuten abian, eta 2007 eta 2013 bitarte garatuko da. Barrura begirako lan bat egin dute berdintasunaren inguruan, eta jabekuntza eta teknologia berriekin ere ari dira. Bere ustez, litekeena da antzeko lanak egiten dituzten beste elkarte edo erakunde batzuekin gainjartzea. Gertatu izan zaie baita ikastaroak antolatzea eta plazak ez betetzea. Emakumeen Etxea proiektu garrantzitsua iruditzen zaie, eta hara zenbait gauza eraman ditzaketela, baina azpiegitura egokia behar da. Garaipenekin batera, emakume immigranteei laguntza emateko talde bat osatu dute. Bestalde, erakunde eta elkarten prestakuntza-eskaintza bateratuko dituen informazio-kanalik ez dagoela aipatu du.
- **Gehitu.** ordezkariak azaldu du bere elkarteak Infasis zerbitzua kudeatzen duela. Zerbitzu horrek informazioa eta laguntza ematen die, telefonoz, posta elektronikoz edo Gehituen egoitzan bertan, lesbiana, gay, transexual eta bisexualei, eta horien senitarteko eta lagunei. Egoitzan bertan GIBaren proba azkarra (botikan egiten dutena) egiteko aukera eskainiko dute laster. Eskoletan hitzaldiak ematen dituzte eta aisialdiko jarduerak ere antolatzen dituzte. Homosexualen gurasoei laguntza emateko taldeak ere badituzte. Emakumeen Etxeari dagokionez, Gehituk Infasis-en telefonoa jarriko luke proiektuaren esku, mediatekako esteka eta beren liburutegia kontsultatzeko aukera (gaur egun sarrera mugatua da). Filmak botatzeko eta hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatzeko prest daude.

Beste elkarte batzuekin ere harremanetan izan dira, baina ez daude bilera honetan. Hauek dira:

- **Biltzen.** Kulturen arteko bitartekotza eta hezkuntzako ekimen erkideak koordinatzen dituen Eusko Jaurlaritzaren mendeko zentro bat da. Emakume eta gizonei zuzenduta dago, eta lokal bat du Donostiako erdigunean.
- **Aspegi.** Emakume profesional eta enpresarien elkarte bat da, eta bere eginkizun nagusia, emakume ekintzaileei aholku-ematea. Lokala Aieten dute, eta hitzarmenak dituzte zenbait herri-erakunderekin.
- **Garaipen.** (Elkarte honen ordezkaria, aurkezpenen ondoren iritsi da). Bertako emakume eta emakume immigranteek osatutako elkarte bat da. Feminista definitzen da, eta laguntza eta aholkularitza ematen die emakume immigranteei. Urte batzuk daramatzate emakumeentzako lidergo eskola kudeatzen. Diru-laguntzak jasotzen dituzte zenbait erakundetatik eta bi egoitza dituzte: bat Oreretan, eta beste bat Gazte Elkartegintzarako Baliabideen Zentroan (Anoeta, Donostia).

6. Emakumeen Etxea elkartearen proposamena.

Ordezkaria batek, Emakumeen Etxea elkartearen izenean, elkartearen sortze-prozesua ekarri du gogora. Legeztatuta dago jada, eta emakumeen artean ezagutzera emateko hedapen-kanpaina egitea du lehentasun, une hauetan. Horretarako, diru-laguntza eskatu du. Elkartearen azken

bileran, zerbitzuei buruz eztabaidatu zuten, eta ondorioztatu zuten Okendon hobe dela informazio-gune bakarra eskaintzea (hau da informazioa eman eta gero dagokion zerbitzura bideratzea) eta jardueretan (ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak...) zentratzea.

Dokumentazio Zentroari buruz, berriz, genero-ikuspegitiko hirigintzan espezializatu zitekeela irizten diote.

7. Talde-dinamika.

Hiru lan-talde egin dira, eta galdera hauek planteatu dizkiegu:

1. Okendon zerbitzuak eskaini behar direla uste al duzue?
2. Aurkeztutako zerbitzuetatik, zein iruditzen zaizkizue lehentasunezkoak Okendon emateko?
3. Beste zerbitzuren bat lehentasunezkoztat jotzen al duzue Okendon emateko?
4. Zuen iritziz, zer baldintzatan eman behar lirateke zerbitzuok?

Bateratze-lanean, emaitza hauek jaso dira:

- 1. galdera: Hiru taldeek BAIETZ erantzun dute.
- 2. galdera: Hiru taldeak bat datoz informazio orokorreko gunea ezinbestekoa dela iritziarekin. Horrez gain, bi talderentzat lehentasuna du emakume immigranteentzako informazio-zerbitzua eta enplegu-zerbitzua eskaintzeak. Taldeetako batek lehentasuna ematen dio emakumeen aurkako bortizkeriari buruzko informazioa emateari.

*Zerbitzuak publikoak edo pribatuak diren eztabaida sortu da, baina ebatzi gabe gelditu da. Gai beraren inguruan zerbitzua ematen duten talde edo elkarte bat baino gehiago badaude, zer talderengana jo zalantza planteatu da.

- 3. galdera: talde batek "aurretiazko" lege-aholkularitza aipatu du, eta beste batek sexuari buruzko informazio-zerbitzua, batez ere neska gazteak erakartzeko helburuarekin.
- 4. galdera: alderdi hauek aipatu dira:
 - Zerbitzu horiek ematen dituzten elkarteak irabazi asmorik gabekoak izatea.
 - Zerbitzu guztiak doan izatea emakumeentzat.
 - Zerbitzuak ematen dituztenek "berdintasun-irizpidea" izatea.
 - Zerbitzuen kalitatea bermatzeko, elkarteekin hitzarmenak izenpetzea aipatu du talde batek.

Guztiak ez datoz bat hitzarmenen eta ordainketaren inguruan. Garaipen eta Emakumea elkartekoek diote prest daudela zerbitzuok doan emateko (Udalari dagokionez).

Eztabaidan une bat iritsi da non zaila egiten baita aurrera egitea, eta zer ordu den ikusita, bilera etetea eta beste batean jarraitzea erabaki da. Kontzeptuak argitzeko (oraindik ere nolabaiteko nahasketa dago "zerbitzu" eta "jarduera" terminoen inguruan) eta zerbitzuak ematen dituzten elkarteek Emakumeen Etxearekin dituzten asmoak dokumentu bakar batean jasotzeko, erabaki da datorren bilerarako fitxa bat prestatzea elkarte bakoitzari buruzko informazio garrantzitsuenarekin: ematen duen zerbitzua, programak eta jarduerak eta jartzen dituen baldintzak eta abar.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



BERDINTASUNAREN ALDEKO
DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA
CONSEJO DE LAS MUJERES DE
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

Berdintasun eta Lankidetzeta Atala
Sección de Igualdad y Cooperación

Ijentea, 6 - Tel. 943481471 - 943481413 - Faxe 943481843 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Emakumeen Etxeari buruzko hurrengo hausnarketa-jardunaldia: apirilaren 30ean, 16:00etan. Lehenago, bisitak Villa Soroara (martxoaren 27an, 10:00etan) eta Okendora (apirilaren 15ean, 17:00etan).

Bilera hau arratsaldeko zortzietan amaitu da.

Donostia, 2010eko martxoaren 29a